

Juan San Martin (erdian) Urrezko Idazluma jasotzen, Mikel Etxebarria eta Xabier Kintana ondoan dituela.

MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS



42

Euskararen lagun handi bat

Errespetua eta bake beharra aipatu ditu Juan San Martinek Bilboko Liburu Azokako Urrezko Idazluma jasotzean

IKERKUNTZA. 38

Klonazio bidez lortutako ehunak ez du errefusik eragin behiekin egindako ikerketa batean

AEBetan eginiko aurkikuntzak itxaropena berpiztu du giza klonazio terapeutikoaren ahalmenaren inguruan



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS
Jose Maria Perez Bustero.

HISTORIA. 43

Familia bateko 51 gizaldiren bidez, Euskal Herriaren historia kontatu du Jose Maria Perez Busterok

Eleberri giroko historia liburu gisa aurkeztu du egileak: 'Vascones'

ZINEMA. 45

'Niniak 2002' egitasmoko bost ekoiztetxe Annecyko Zinema Azokan izango dira

Jaurilaritzak jarritako erakusmahaietan izango dira Abrakam Estudio, Dibulitoon, Irusoin, Merlin WEBTV eta Pausoka